ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Diligencia: Para hacer constar que el presente documento ha sido aprobado por el Consejo General de Consorcio de Transportes de Bizkaia de fecha:
Eginbidea: Zera jasota gera dadin ondoren aipatzen den datan, Bizkaiako Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak agiri hau onartu duela:
2014ko apirilaren 1a
Doy fe. Fede ematen dut.
Data/Fecha: Bilbao(n), 2014/04/01
Idazkari nagusia/El secretario general

CARÁTULA DEL PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUAREN AZALA

CONTRATO DE SERVICIOS

ZERBITZU KONTRATUA

A.- Objeto del Contrato

Asistencia Técnica a la Dirección de Obra de los proyectos gestionados por el Servicio de Estudios y Planificación del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

CPV Reglamento 213/2008 de 28 de noviembre de la Comisión. Código: 71311230-2

**A.- Kontratuaren helburua:**

Bizkaiko Garraio Partzuergoko Azterlan eta Plangintza Zerbitzuak kudeatzen dituen proiektuetako obra-zuzendaritzarako laguntza teknikoa.

Batzordearen azaroaren 28ko 213/2008 CPV Arautegia. Kodea: 71311230-2

B.- Departamento promotor

Dirección Gerencia

**B.- Sail sustatzailea**

Zuzendaritza Nagusia

C.- Órgano de contratación

Consejo General del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

**C.- Kontratazio Organoa**

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusia.

D.- Presupuesto de licitación y valor estimado

**D.- Lizitazio Aurrekontua eta aurreikusitako balioa**

| | |
|---|---|
| LIZITAZIO AURREKONTUA<br>PRESUPUESTO DE LICITACIÓN | 1.130.000,00 € |
| BEZ<br>IVA 21% | 237.300,00 € |
| GUZTIRA<br>TOTAL | 1.367.300,00 € |
| AURREIKUSITAKO BALIOA BEZ KANPO<br>VALOR ESTIMADO –IVA EXCLUIDO- | 2.260.000,00 € |

E.- Anualidad/es (IVA incluído):

**E.- Urterokoa/k (BEZ barne):**

| Año/Urtea | Importe anualidad/Urterokoaren Zenbatekoa |
|---|---|
| 2014 | 341.825,00 |
| 2015 | 683.650,00 |
| 2016 | 341.825,00 |

F.- Consignación presupuestaria

00100 12000 6432011

**F- Aurrekontu kontsignazioa**

00100 12000 6432011

G.- Tramitación

Ordinaria

**G.- Tramitazioa**

Arrunta

H.- Procedimiento de Adjudicación

Procedimiento abierto.

**F- Adjudikatzeko modua**

Prozedura irekia.

I.1- Criterios cuantificables automáticamente – Sobre B.

- Propuesta económica formulada. (Valoración de 0 a 40 puntos).

- Valor máximo (40 puntos) a la oferta económica de menor importe de entre las admitidas, salvada la condición de proposición con valores anormales o desproporcionados, definidos en el apartado V de esta carátula.
- Valor mínimo (cero puntos) al tipo de contrato.

Para las ofertas económicas de importe comprendido entre el presupuesto de licitación y la de menor importe de las ofertas

**I.1.- Automatikoki zenbatzeko modukoak diren Adjudikazio Irizpideak – B Gutun-azala.**

- Eskaintzako proposamen ekonomikoa. (Balorazioa: 0tik 40 puntura)

- Onartutako eskaintzen artean, zenbateko ekonomiko txikiena duenari gehieneko balioa eman zaio (40 puntu), azal honen V. idatz-zatian jasotzen diren ezohiko edo neurrigabeko balioak dituzten proposamenak ez badira.
- Kontratu motari gutxieneko balioa eman zaio (zero puntu).

Lizitazioaren aurrekontuaren eta onartu diren nahitaezko eskaintzen zenbateko txikienaren arteko zenbatekoa duten eskaintza

obligatorias admitidas, salvada la condición de proposición con valores anormales o desproporcionados, la valoración seguirá un criterio lineal.

ekonomikoetan irizpide lineala aplikatuz egingo da balorazioa, ezohiko edo neurrigabeko balioak dituzten proposamenak ez badira.

I.2- Criterios no cuantificables automáticamente – Sobre C.

**I.2.- Automatikoki zenbatu ezin diren Esleipen Irizpideak – C Gutunazala.**

1º .- Servicio ofertado. (Valoración de 0 a 40 puntos, umbral mínimo 20 puntos)

**1º. - Eskainitako zerbitzua. (Balorazioa: Otik 40 puntura; gutxienezko atalasea: 20 puntu)**

En este apartado se valorarán especialmente los recursos humanos y materiales que el licitador ponga a disposición del Consorcio de Transportes de Bizkaia para la ejecución del contrato. El peso de este criterio lo tiene el equipo humano asignado a la ejecución del contrato, con especial mención a los recursos asignados localmente.

Atal honetan bereziki baloratuko dira kontratua gauzatzeko lizitatzaileak Bizkaiko Garraio Partzuergoaren esku jartzen dituen giza baliabideak eta baliabide materialak. Irizpide honen funtsa da kontratua gauzatzeko dagoen gizataldea, aipamen berezia eginez toki mailan esleitutako baliabideei.

Se valorará el equipo de trabajo asignado a la ejecución del contrato indicando su formación y titulación, y experiencia en proyectos de similares características al de la licitación, que superen lo especificado en los criterios de solvencia.

Kontratua gauzatzeko dagoen lantaldea baloratuko da, haien prestakuntza eta titulazioa adieraziz, eta lizitazio honen antzeko proiektuetan duten esperientzia, kaudimenaren irizpideetan adierazitakoa gorabehera.

Se valorarán las garantías, medios que el licitador ofrece para el desarrollo del contrato y su adecuación a las necesidades del Consorcio de Transportes de Bizkaia, por encima de lo estipulado como criterio de solvencia.

Lizitatzaileak kontratua garatzeko eskaintzen dituen bermeak eta bitartekoak baloratuko dira eta haiek nola egokitzen diren Bizkaiko Garraio Partzuergoaren beharrizanetara, kaudimenaren irizpideetan adierazitakoa gorabehera.

Se valorarán aquellos otros aspectos de la estructura del licitador que resulte adecuado para el desarrollo del contrato y que el licitador ponga a disposición del Consorcio sin coste.

Baloratu egingo dira lizitatzailearen egiturako beste alderdi batzuk ere, kontratua garatzeko egokiak izan daitezkeenak eta lizitatzaileak Partzuergoaren esku jartzen dituenak kosturik gabe.

Las ofertas que no superen 10 puntos serán desestimadas automáticamente.

10 puntu gainditzen ez dituzten eskaintzak besterik gabe baztertuko dira.

2º.- Calidad y solidez de la proposición técnica. (Valoración de 0 a 20 puntos, umbral mínimo 10 puntos)

En este apartado se valorará la propuesta de ejecución y desarrollo del contrato, así como su enfoque.

Valoración de la solidez de la oferta presentada y de la programación, organización y metodología de desarrollo de los trabajos especificados, y planificación de los mismos, justificándose la coherencia entre medios técnicos y humanos ofertados por el licitador.

En este apartado se valorará la memoria de los Estudios Específicos descritos en el Pliego Técnico.

Las ofertas que no superen 10 puntos serán desestimadas automáticamente.

J.- Garantía provisional

No se exige.

K.- Garantía definitiva

5 % del importe de adjudicación, excluido IVA

L.- Revisión de precios

No

M.- Autorización de variantes

No se admiten variantes.

**2º.- Proposamen teknikoaren kalitatea eta sendotasuna. (Balorazioa: 0tik 20 puntura; gutxienezko atalasea: 10 puntu)**

Atal honetan kontratua burutzeko eta garatzeko proposamena baloratuko da eta bai haren ikuspegia ere.

Aurkeztutako eskaintzaren sendotasuna baloratuko da eta laguntza garatzeko programazioa, antolakuntza eta metodologia, lanen planifikazioa, eta eskainitako baliabideen (giza eta teknokoak) arteko oreka.

Atal honetan baloratuko da baldintza teknikoen agirian deskribatutako Berariazko Azterlanen memoria.

10 puntu gainditzen ez dituzten eskaintzak besterik gabe baztertuko dira.

**J.- Behin-behineko bermea.**

Ez da eskatzen.

**K.- Behin betiko bermea.**

%5 adjudikazio aurrekontuaren gainean, BEZ kanpo.

**L.- Prezioak berrikustea**

Ez

M.- Aldaerak onartzeko aukera

Ez da aldaerarik onartzen.

N.- Plazo de ejecución/Entrega

24 meses.

O.- Opción de prórroga

Sí, dos prórrogas de 12 meses de máximo cada una.

P.- Plazo de Garantía

Un año.

Q.- Plazo de presentación de proposiciones

Según fecha indicada en los boletines oficiales.

R.- Lugar de presentación de las proposiciones

Consorcio de Transportes de Bizkaia, Ugasko bidea, nº 5-bis, primera planta, 48014 - Bilbao

S.- Gastos de publicidad

Sí

T.- Medios de acreditación de la solvencia

Solvencia económica y financiera: Los licitadores podrán acreditar su solvencia económica y financiera mediante uno varios de los medios siguientes:

1.- Declaraciones apropiadas de entidades financieras en la que se indique expresamente la solvencia respecto del importe del presupuesto de la presente licitación o, en su caso, justificante de la existencia de un seguro de indemnización por riesgos profesionales por

N.- Gauzatzeko/entregatzeko epea

24 hilabete.

O.- Luzapenaren aukera

Bai, bi luzapen, bakoitza 12 hilabetekoa gehienez.

P.- Berme-epea

Urtebete.

Q.- Proposamenak hartzeko epea

Aldizkari ofizialetan ezarritako dataren arabera.

R.- Proposamenak aurkezteko lekua

Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Ugasko bidea, 5-bis, lehenengo solairua, 48014 - Bilbo

S.- Publizitate gastuak

Bai

T.- Kaudimena frogatzeko erak

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: Lizitatzaileek euren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa frogatu ahal izango dute honako bide hauetako bat edo gehiago erabiliz:

1.- Finantza-erakundeen adierazpen egokiak, non beren beregi azalduko baita lizitatzailearen kaudimena, lizitazio honen aurrekontuari dagokionez, edo, hala badagokio, arrisku profesionalengatiko kalte-ordainerako zenbateko bereko asegurua izatearen

el mismo importe.

egiaztagiria.

2.- Declaración sobre el volumen global de negocios, referido a los tres últimos ejercicios disponibles en función de la fecha de creación o de inicio de las actividades del empresario, en la medida en que se disponga de las referencias de dicho volumen de negocios, de al menos 3.000.000 euros anuales.

2.- Negozio kopuru osoari buruzko aitorpena, eskura dauden azken hiru ekitaldiei buruzkoa, sorrera-dataren edo enpresaburuaren jardueren hasierako egunaren arabera, baldin eta negozio kopuru horren erreferentziak eskuragarriak badira. Gutxienez, 3.000.000 euro urtean.

Solvencia Técnica: Los licitadores deben acreditar el cumplimiento de todos los requisitos que se indican a continuación a través de los medios que se señalan en cada caso:

Kaudimen teknikoa: lizitatzaileek frogatu egin behar dute ondoren adieraziko diren baldintza guztiak betetzen dituztela, kasu bakoitzean aipatzen diren bideak erabiliz:

a) Una relación de los principales servicios o trabajos realizados en los últimos tres años en contratos de Asistencias Técnicas para obras relacionadas con explotaciones ferroviarias, que incluya importe, fechas y el destinatario, público o privado, de los mismos. Los servicios o trabajos efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público; cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por éste o, a falta de este certificado, mediante una declaración del empresario; en su caso, estos certificados serán comunicados directamente al órgano de contratación por la autoridad competente. IMPORTE MINIMO ANUAL: 1.000.000,00 € en total.

a) Azken hiru urteetan, trenbide ustiapenekin zerikusia duten obretan, obra-zuzendaritzetarako laguntza teknikoen kontratuetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbatekoak, datak eta zerbitzu edo lanen hartzaile publiko edo pribatuak barne. Egindako zerbitzu edo lanak frogatzeko, organo eskudunak luzatutako edo ontzat emandako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat izanez gero; hartzailea subjektu pribatua bada, berak emandako ziurtagiria aurkeztuko da, edo, horrelakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen bat; behar izanez gero, agintaritza eskudunak kontratazio organoari zuzenean emango dizkio ziurtagiri horiek. URTEKO GUTXIENEKO ZENBATEKOA: 1.000.000,00 € guztira.

b) Las titulaciones académicas y profesionales del empresario y del personal directivo de la empresa y, en particular, del personal responsable de la ejecución del contrato.
Declaración indicando la maquinaria, material y equipo técnico del que dispondrá para la

b) Enpresaburuaren eta enpresako langileen titulazio akademiko eta profesionalak, eta, bereziki, kontratua burutzeko ardura izango duten langileenak.
Lan edo zerbitzuak egiteko erabiliko diren

ejecución de los trabajos o prestaciones, a la que se adjuntará la documentación acreditativa pertinente. El equipo técnico y los años de experiencia a acreditar se resumen en la siguiente tabla.

| EQUIPO TECNICO PROPIO | Años de experiencia contrastables |
|---|---|
| Jefe de la Asistencia | 15 |
| Ingeniero especialista señalización ferroviaria | 7 |
| Ingeniero especialista subcentrales – Electrificación de Ferrocarriles | 7 |
| Ingeniero especialista ticketing – comunicaciones – Puesto de Mando Centralizado | 7 |
| Ingeniero de Caminos Canales y Puertos experto en plataforma y vía ferroviaria | 7 |

makinei, materialei eta lantalde teknikoari buruzko aitorpena, eta, horri erantsita, behar diren egiaztagiriak. Lantalde teknikoa eta frogatu beharreko esperientzia-urteak beheko taulan ageri dira laburbilduta.

| LANTALDE TEKNIKO BEREKIA | Esperientzia urte egiaztagarriak |
|---|---|
| Laguntzako burua | 15 |
| Ingeniari espezialista. Trenbideko seinalizazioa | 7 |
| Ingeniari espezialista. Azpizentralak – Trenbideen elektrifikazioa | 7 |
| Ingeniari espezialista. Ticketing-a – Komunikazioak – Aginte Postu Zentralizatua | 7 |
| Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria, tren plataforman eta trenbidean aditua. | 7 |

U.- Perfil de Contratante

www.cotrabi.com

**V.- Límites que permiten apreciar el carácter desproporcionado o anormal de las ofertas en cuanto al precio.**

10 unidades porcentuales por debajo de la media de los precios ofertados por los licitadores al proyecto base.

W.- Otras especificaciones

**U.- Kontratu-egilearen profila**

www.cotrabi.com

**V.- Eskaintzek prezio aldetik neurrigabekoak edo ezohikoak diren baloratzeko mugak.**

Lizitatzaileek oinarrizko proiekturako eskaini dituzten prezioen batezbestekotik behera 10 unitate portzentual.

**V.- Beste zehaztasun batzuk.**

1.- Forma de pago:

Certificaciones Mensuales según los trabajos realizados en dicho periodo.

2.- Seguro

Se contratará una póliza de Responsabilidad Civil con los siguientes límites y coberturas:

- Responsabilidad Civil general con un límite no inferior a 1.500.000 € y una franquicia máxima de 10.000 €
- Responsabilidad Civil patronal con un límite no inferior a 1.500.000 € y una franquicia máxima de 10.000 €
- Sublímite por victima de responsabilidad patronal no inferior a 180.000 €.
- Responsabilidad Civil Profesional con un límite no inferior de 1.500.000,00 € y franquicia máxima de 10.000,00 €.

.-Se incluirá al Consorcio de Transportes de Bizkaia como asegurado adicional, sin perder la condición de tercero.

3.-Presentación de la oferta:

El ofertante deberá presentar su propuesta en soporte papel y en CD. De haber contradicción entre ambos, prevalecerá lo especificado en el papel.

No se podrá incluir ningún dato económico en la propuesta técnica (SOBRE C). El incumplimiento de esta condición es causa de exclusión automática de la licitación.

1.- Ordaintzeko era:

Hileroko ziurtapenak, dagokion aldian egindako lanen arabera.

2.- Asegurua

Erantzukizun zibileko poliza kontratatuko da, muga eta estaldura hauekin:

-Erantzukizun zibil orokorra, 1.500.000 euroko mugarekin, gutxienez, eta 10.000 euroko frankiziarekin, gehienez.
-Ugazabaren erantzukizun zibila, 1.500.000 euroko mugarekin, gutxienez, eta 10.000 euroko frankiziarekin, gehienez.
-Ugazabaren erantzukizuna: biktima bakoitzeko 180.000 euroko azpimuga, gutxienez.
-Erantzukizun zibil profesionala, 1.500.000,00 euroko mugarekin, gutxienez, eta 10.000,00 euroko frankiziarekin, gehienez.

.-Bizkaiko Garraio Partzuergoa gehigarrizko aseguratu gisa sartuko da, hirugarrenaren izaera galdu gabe.

3.-Eskaintza aurkeztea:

Eskaintza egiten duenak paperezko euskarrian eta CDan aurkeztu beharko du proposamena. Baina bi hauek bat ez badatoz, paperean agertzen denak izango du lehentasuna.

Proposamen teknikoan (C GUTUN-AZALA) ez da datu ekonomikorik emango. Baldintza hau betetzen ez duenak automatikoki lizitaziotik kanpo geratuko da.